

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

MATURANA
BERASTEGI
JAUREGIA



XIII-XV. Erdi Aroko sutegia



Jauregia eraiki aurretik, leku honetan armak egiteko sutegi bat eta etxebizitza bat egon ziren. XV. mendearen lehen erdialdean sute batek eraikina guztiz erraustu zuen.



Erdi Aroko Europako hainbat eskuizkriburen ilustrazioek sutegiko lana erakusten dute eta lan horietan emakumeek zuten parte hartzearen lekukotasuna dira.

XVI. Jauregiaren eraikuntza



Maturana-Berastegi familiaren hileta kapera. Gasteizko Santa Maria katedrala.

Antonio Sáenz de Maturana

Eraikina testuinguru honetan sortu zen: bandoen artean hiria kontrolatzeko piztutako gudari amaiera emateko ahaleginean ari ziren Errege Katolikoak (1476); Ayala leinuaren sostengua merkataritza-eta artisau-boterea zen, eta Calleja leinuarena landako noblezia-boterea. Antonio Sáenz de Maturana kalonje garrantzitsua, jauregiaren promotorea, Calleja bandoa gidatzen zuen familia bateko kidea zen eta Zapatari kalea kontrolatzen zuen. Bertan dago jauregiaren atzealdeko fatxada.

XVII-XVIII. Jauregia handitzeko lanak



XVII. mendean, Gasteizko hiriak finkatu zeneko muinoaren inguruko hiri-trazadura mantentzen zuen oraindik.



Prudencio María Verástegui Mariaca

José Lorenzo Verástegui

Jauregiaren oinordeko honek garrantzizko karguak izan zituen: Gasteizko Prokuradore Nagusi, Arabako Diputatu Nagusi eta Gasteizko Alkate izan zen, besteak beste. Eraikinaren lehenengo handitzea sustatu zuen 1681ean jauregiko iparraldeko aldearen ondoko etxea erosi ondoren, eta horrela, bizitzeko espazioa bikoiztu zuen.

Prudencio María Verástegui

Jauregiaren bigarren handitze nagusiaren promotorea izan zen. Eraikin honen jabe izan diren artean nabarmendua, bere garaiko Arabako historian izandako eraginagatik. Pentsaera absolutistak eta Gortearrekiko harreman estuak nabarmendu zuten. Kargu militar eta politiko desberdinak izan zituen eta behin baino gehiagotan Arabako Diputatu Nagusia izan zen.

Casilda Varona

Casilda Varonak, bere emazteak, eragin handia izan zuen familiaren eraldaketan mugimendu karlistarekin izan zuen harremanagatik. Casilda Hondarribian hil zen 1802an.

XIX-XX. Proiektuak eta eraberritzeak



Apaizgaitegiko kantoia XX. mendearen erdialdean handitu zen.



2023. Jauregiaren dekoraziorako elementuak eta gelen bistak.

XIX. mendean zehar Verástegui familiak jauregiaren kanpoko proiektu handiei ekitea hartu zuen helburu, azkenean lan horiek gauzatuko ez ziren arren.

Horien artean, jauregia eta kantoia beste aldean kokatutako jabetzaren lorategia lotzeko igarobide goratu bat eraikitzea pentsatu zuten. Gainera, lursailak batzeko kantoiak lekualdatzeko proiektua burutzea ere pentsatu zuten. Hedegile kaleko begiratokiak eta Zapatari kaleko patioko galeria bikoitza mende horren erdialdekoak dira.

Natividad Verástegui

Natividad Verástegui Velascok (1892an jaioa) Fresnoko markesa eta Belvederrek markesa tituluak hartu zituen oinordetzan. Velasco leinuari lotutako noble-familia ere Zapatari kalearen alboko jauregiaren jabe izan zen.

Francisco Díaz de Arcaya

Ezkontideak, Francisco Díaz de Arcaya Verástegui, XX. mendean zehar zenbait berrikuntzari ekin zion. Hedegile kaleko fatxada apaintzeko pintura mende horren bigarren erdialdekoa da.



Maturana Berastegi Jauregia. Hedegile Kalea, 141. Vitoria-Gasteiz

Edizioa

Ekonomia Sustapen, Enplegu,
Merkataritza eta Turismoaren Saila.
Vitoria-Gasteizko Udala

LG G 00450-2023

Iturri dokumental nagusiak

UPV/EHUko Arkitekturaren Arkeologia
Ikerketa-taldea

Helbidea: Agustín Azkarate Garai-Olaun
Ikasketa-arkeologikoaren egileak:
Alberto Plata Montero, Verónica
Benedet

Qark Arqueología. Leandro Sánchez
Zufiaurre, Blanca Renedo Villarroya

Arabako Artxiboa

Vitoria-Gasteizko Udal Artxiboa

Antso Jakituna Fundazioaren
Artxiboa

Kredituak

*Erdi Aroko eskuizkribuak, sutegien
ilustrazioekin.*
Britainiar Liburutegia

Erdi aroko sutegiaren ilustrazioak.
Albert Álvarez Marsal (Dbòlit)

San Bartoloméko hileta kapera.
Santa Maria Katedrala Fundazioa

*Juan Ángel Sáez. Vitoria-Gasteizko
antzinako bistak. 1862.*
Arte Funtzak AVG-03

Prudencio María Verásteguiaren erretratu.
Arabako Arte Ederren Museoko
funtzak

Apaizgaiztegiko kantoia, 1956.
LFM-021-2(3). S. Arina. 1956ko
abenduaren 9

Argazkiak
Gert Voor in't Holt

Diseinua
Hélice creativos

**VITORIA
GASTEIZ**
turismo

& convention bureau

www.vitoria-gasteiz.org/turismo



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



turismo_vitoria



turismovitoria